Udalaren logoa
Logo del ayuntamiento

Gorbeialdeko Kuadrilla
Cuadrilla de Gorbeialdea

**GORBEIALDEKO KUADRILLAREN ETA __________(E)KO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA, ETXEKO ETA ANTZEKO HONDAKINAK BILDU ETA BAIMENDUTAKO TRATAMENDU-INSTALAZIOETARA GARRAIATZEKO ZERBITZUA ETA KOMUNITATEKO KONPOSTAJE-EREMUETAKO MANTENTZE ETA KONTROL-ZERBITZUA KUDEATZEKO AGINDUA BURUTZEKO**

Murgian, 2023ko ___aren __ (e)an.

**BILDURIK**

Alde batetik, Agustin Otsoa Eribeko Landa jauna, **Gorbeialdeko Kuadrillako** presidente gisa, _________(e)ko Kuadrillako Batzarrak hitzarmen hau sinatzeko gaitua.

Bestetik, __________ jauna/andrea, ________(e)ko udaleko alkate-presidente eta ________(e)ko udalbatzaren erabakiz hitzarmen hau sinatzeko gaituta.

Alderdiek legezko gaitasun nahikoa eta beharrezkoa aitortzen diote elkarri egintza hau burutzeko eta, ondorioz,

**AZALDU DUTE**

1. Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.b artikuluaren arabera, arestian aipatutako toki-erakundeak eskumena du "*hiri-ingurunearen arloan, bereziki, parke eta lorategi publikoak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta hiri-eremuetako kutsadura akustiko, argi eta atmosferikoaren aurkako babesa".*

Ildo beretik, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak 12.5.a artikuluan ezartzen duenez, toki-erakundeei dagokie, beren lurralde-eremu osoan, etxeko hondakinak biltzea, garraiatzea eta tratatzea, nork bere ordenantzetan ezartzen duen moduan, lege honetan, autonomia-erkidegoek onartutako plangintza-lege eta tresnetan eta, hala balegokio, ekoizlearen erantzukizun zabalduari buruzko arautegi sektorialean ezarritako esparru juridikoarekin bat etorriz. *Horretarako, bilketa-sare nahikoa eduki beharko da, garbiguneak ere barne direlarik edo, beharrik balego, hautabidezko*

**CONVENIO ENTRE LA CUADRILLA DE GORBEIALDEA Y EL AYUNTAMIENTO DE __________ PARA LA ENCOMIENDA DE GESTIÓN DEL SERVICIO DE RECOGIDA DE LOS RESIDUOS DOMÉSTICOS Y ASIMILABLES, Y SU TRANSPORTE A LAS PLANTAS DE TRATAMIENTO AUTORIZADAS y DEL SERVICIO DE MANTENIMIENTO Y CONTROL DE LAS ZONAS DE COMPOSTAJE COMUNITARIO**

En Murgia, a _____ de _____ de 2023.

**REUNIDOS**

De una parte, D. Agustin Otsoa Eribeko Landa, en calidad de presidente de la **Cuadrilla de Gorbeialdea** y habilitado para la firma del presente convenio por acuerdo de Junta de Cuadrilla de fecha _______.

De otra parte, D/Dña __________ en calidad de alcalde/sa presidente de ________ y habilitada para la firma del presente convenio por acuerdo de Pleno de fecha _______.

Las partes se reconocen mutua y recíprocamente la capacidad legal suficiente y necesaria para la celebración de este acto y, por consiguiente,

**EXPONEN**

1. De conformidad con lo dispuesto en el art. 25.2.b de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local, la entidad Local antes mencionada es titular de las competencias en materia de *"Medio ambiente urbano: en particular, parques y jardines públicos, gestión de los residuos sólidos urbanos y protección contra la contaminación acústica, lumínica y atmosférica en las zonas urbanas"* ,

En el mismo sentido, la Ley 7/2022, de 8 de abril, de residuos y suelos contaminados para una economía circular establece en su artículo 12.5.a que corresponde a las entidades locales "*Como servicio obligatorio, en todo su ámbito territorial, la recogida, el transporte y el tratamiento de los residuos domésticos en la forma en que establezcan sus respectivas ordenanzas, de conformidad con el marco jurídico establecido en esta ley, en las leyes e instrumentos de planificación que, en su caso, aprueben las comunidades autónomas y en la normativa sectorial en materia de responsabilidad ampliada*

*guneak, toki-erakundeak erabakiko dituenak hondakin horiek doan utzi eta garraiatzeko baliatuta. Zerbitzu honen eskaintzea udalerriei dagokie, modu independentean edo elkartuan eman dezaketelarik, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean ezarritakoarekin bat etorrita.*

*del productor. A estos efectos, se deberá disponer de una red de recogida suficiente que incluirá puntos limpios o, en su caso, puntos de entrega alternativos que hayan sido acordados por la entidad local para la retirada gratuita de los mismos. La prestación de este servicio corresponde a los municipios que podrán llevarla a cabo de forma independiente o asociada, conforme a lo establecido en la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local."*

2. Otxandio, Legutio, Zigoitia, Zuia eta Urkabustaizko udalek eta Oletako administrazio-batzarrak Gorbeia Inguruetako Partzuergoa eratu zuten 1988an, lurralde-eremuan etxeko hondakinak eta antzekoak biltzeko zerbitzuak hobeto eta egokiago emateko eta baimendutako tratamendu-zentroetara garraiatzeko helburuaz.

2. Los ayuntamientos de Otxandio, Legutio, Zigoitia, Zuia, Urkabustaiz y la Junta Administrativa de Oleta constituyeron en el año 1988 el Consorcio de Estribaciones del Gorbea, para una mejor y más adecuada prestación en ámbito territorial de los servicios de recogida de residuos domésticos y asimilables y su transporte a los centros de tratamiento autorizados.

3. Aurrekoa oinarri hartuta, Partzuergoak zerbitzu horren kontratatzeko lizitazioa egin du ordutik aurrera. Izan ere, gaur egun, zerbitzua eskaintzen ari da Partzuergoaren Batzar Nagusiak onartutako klausula administratiboen eta klausula teknikoen pleguetan agertzen diren baldintza eta ezaugarriekin bat etorrita. Baldintza eta ezaugarri horiek oinarri izan dira kontratua 8 urtez esleitzeko, 2022ko urriaren 1ean hasita.

3. Con base en lo anterior, el Consorcio ha venido licitando desde esa fecha la contratación del servicio. De hecho, el mismo se está prestando en la actualidad de conformidad con las condiciones y características que figuran en los pliegos de cláusulas administrativas y de cláusulas técnicas aprobados por la Asamblea General del Consorcio y que han servido de base para la adjudicación del contrato por periodo de 8 años, a contar desde el 1 de octubre de 2022.

4. Gainera, 2020an, Aramaio, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuiako Udalen eta Gorbeia Inguruetako Partzuergoaren arteko administrazioen arteko hitzarmena onartu zen, udalerri horien lurralde-eremuan egokitutako komunitateko konpostaje-guneak mantentzeko eta kontrolatzeko zerbitzua Partzuergoaren esku uzteko.

4. Además, en el año 2020 se aprobó el convenio interadministrativo entre los ayuntamientos de Aramaio, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia y Zuia, y el Consorcio de Estribaciones del Gorbea, para la encomienda de la prestación al Consorcio del servicio de mantenimiento y control de las zonas de compostaje comunitario habilitadas en el ámbito territorial de los municipios citados.

5. Urte hauetan guztietan, bi erakundeak batera egon dira, Gorbeia Inguruetako Partzuergoa eta Gorbeialdeko kuadrilla, nahiz Partzuergoa izan den hondakin solidoak biltzeko eta baimendutako tratamendu-zentroetara garraiatzeko zerbitzuaren kontratazioa eta komunitateko konpostaje-guneak mantentzeko eta kontrolatzeko zerbitzuaren kontratazioa kudeatu izan dituena.

5. Durante todos estos años han venido coexistiendo las dos entidades, el Consorcio de Estribaciones del Gorbea y la Cuadrilla de Gorbeialdea, si bien el Consorcio ha gestionado únicamente la contratación del Servicio de recogida de residuos sólidos y su transporte a los centros de tratamiento autorizados, y del Servicio de mantenimiento y control de las zonas de compostaje comunitario.

6. Gaur egun, eskualdean den erakunde-sarea eraginkorrago eta sinpleagoa izan dadin, partzuergoa osatzen duten erakundeek egoki iritzi diote berori likidatzeari eta, Kuadrillaren esku

6. En el momento actual, y en aras de conseguir una mayor eficiencia y simplificación del entramado institucional comarcal, las entidades que integran el Consorcio consideran necesario su

uzteari aurreko puntuan aipatutako zerbitzuen kudeaketa, Otxandioko udalerriko konpostaje komunitarioren mantentze-lanetarako eta kontrolerako zerbitzua izan ezik.

liquidación, y la encomienda a la Cuadrilla de la gestión de los servicios citados en el punto anterior, salvo el servicio de mantenimiento y control de las zonas de compostaje comunitario en el municipio de Otxandio.

7. Kuadrillei buruzko 1989ko azaroaren 20ko 63/1989 Foru-Arauaren 9. artikuluan xedatutakoarekin bat, Gorbeialdeko Kuadrilla Aramaio, Arratzua-Ubarrundia, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuia udalerriek osatzen dute.

7. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 9 de la Norma Foral 63/1989, de 20 de noviembre de 1989, de Cuadrillas, la Cuadrilla de Gorbeialdea/ Gorbeialdeko Kuadrilla está integrada por los municipios de Aramaio, Arratzua-Ubarrundia, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia y Zuia.

Gaur egungo egoerari so, Arabako kuadrillak lurralde-esparru egokia dira udalerriek baino eremu zabalagoak behar dituzten politika orokorrak edo sektorialak ezartzeko eta horiek garatzeko, baina horrek ez du esan nahi udalerri eta toki-erakundeen berezko eskumenak murrizten direnik, bai eta zuzeneko onurak atera ere, beren barrutian ekonomikoki bideragarriak ez liratekeen jarduerak gauzatu ahal baitituzte. Beraz, Kuadrilla bide egokia da udal-eskumeneko zenbait zerbitzu orokor batera garatzeko.

En su concepción actual, las Cuadrillas alavesas son el marco territorial apropiado para la implantación de políticas generales o sectoriales que precisan de espacios más amplios que el de los municipios para su desarrollo, sin que ello suponga merma de las competencias propias de los entes municipales y locales que se pueden beneficiar directamente de actuaciones que serían económicamente inviables en su demarcación. Por lo tanto, la Cuadrilla es el cauce oportuno para desarrollar de manera conjunta varios servicios generales de competencia municipal.

Otxandioko udalerriak muga egiten du Kuadrillarekin, nabarmena delarik agindua jasoko duen erakundearekiko lotura, bere lurralde-ezaugarriak eta ezaugarri funtzionalak kontuan hartuta. Horregatik, bi aldeek egoki iritzi diote agindua egiteari, kudeaketa publiko eraginkorragoa lortzeko eta baliabide eta zerbitzu publikoak batera erabiltzeko erraztasunak emateko.

El municipio de Otxandio colinda con la Cuadrilla y dada sus características tanto territoriales como funcionales, es notable la vinculación existente con la entidad encomendada. Es por ello, que se valora por ambas partes adecuada la realización de la encomienda en base a lograr una gestión pública más eficiente y facilitar la utilización conjunta de medios y servicios públicos.

8. Udal/kontzeju sinatzaileak Gorbeialdeko Kuadrillaren esku utz ditzake eskumenen jarduera materialak edo teknikoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluak ezarritakoa baliatuta.

8. El ayuntamiento/concejo firmante puede encomendar la realización de actividades de carácter material o técnico de las competencias a la Cuadrilla de Gorbeialdea en base a lo dispuesto en el art. 11 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Gorbeialdeko Kuadrillak eskumena du udal sinatzaileek agindutako jarduera materialak edo teknikoak egiteko, Kuadrillei buruzko azaroaren 20ko 63/1989 Foru-Arauaren 1. artikuluak aintzat harturik, halaxe baitio aipatutako foru-arauaren 28. artikuluak: *"Eskualdeei, parte hartze eta kontsultarako eta interes komuneko zerbitzuak sustatu eta kudeatzeko erakunde bezala, honako gaiak dagozkie: e) Eskualdearen interes orokorreko zerbitzuak sustatu eta kudeatzea; f) Udalen, Aldundiaren, eta zuzenbide publikoko*

La Cuadrilla de Gorbeialdea es competente para realizar las actividades de carácter material o técnico encomendadas por los ayuntamientos firmantes en virtud del art. 1 de la Norma Foral 63/1989, de 20 de noviembre, de Cuadrillas, tal y como establece el art. 28 de la citada norma foral: *"Corresponde a las Cuadrillas, como institución de participación y consulta y de promoción y gestión de intereses comarcales: e) Promover y gestionar servicios de interés general de la Cuadrilla. f) Asumir competencias por delegación o*

*beste erakunde batzuen eskuordetzeaz eskumenak bereganatzea."*

9. 9/2017 legeak, azaroaren 8koak, sektore publikoaren kontratuei buruzkoa, Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE zuzentarauak espainiar ordenamendu juridikoari ekartzekoak (aurrerantzean,SPKL), dio bertako 31.1 artikuluan ezen: *"Sektore publikoko erakundeak elkarrekin lankidetzan aritu ahalko dira honako modu hauetakoren batean, lankidetza horren emaitza kontratu-izaerakotzat hartu gabe: b) Sektore publikoko erakundeen arteko lankidetza horizontaleko sistemen bitartez, aurrez behar diren itunak eginez, 1. artikuluaren 6. apartatuan ezarritako baldintzekin eta mugekin.*

10. Lankidetza hori legez bat dator administrazioen arteko lankidetza, elkarkidetza eta laguntzaren printzipioekin, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 140 eta hurrengoetan, Euskadiko Toki-Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 107. artikuluan eta aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean jasotakoekin.

Hitzarmen hau lehen aipatutako 40/2015 legearen 11. artikuluan aurreikusitakoaren babesean formalizatuko da, hitzarmen honetan zehazten diren zerbitzuak ematea osatzen duten eginkizunen kudeaketa-agindua babestuz. Artikulu horretako hirugarren paragrafoak agindua nola formalizatu behar den zehazten du: *"b) Kudeaketa-agindua administrazio desberdinetako organo eta zuzenbide publikoko entitateen artean egiten denean, dagokion hitzarmena izenpetuz formalizatuko da; ez da hitzarmenik behar, ordea, probintzietako diputazioek edo uharteetako kabildo edo kontseiluek autonomia-erkidegoetako zerbitzuen ohiko kudeaketaz arduratu behar dutenean; izan ere, kasu horretan, toki-araubidearen legeriak arautuko baitu kudeaketa-agindua. Aipatutako hitzarmena Estatuko Aldizkari Ofizialean, autonomia-erkidegoko aldizkari ofizialean edo probintziakoan argitaratuko da, agindua egiten duen organoa zein administraziotakoa den kontuan hartuta."*

Agindua hitzarmen baten bidez formalizatu behar bada ere, aginduak ez du bete behar 40/2015

*trasferencia de los ayuntamientos y otras instituciones."*

9. La Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014 (en adelante, LCSP), establece en su art. 31.1 que: *"Las entidades pertenecientes al sector público podrán cooperar entre sí, de alguna de las siguientes formas, sin que el resultado de esa cooperación pueda calificarse de contractual: b) Mediante sistemas de cooperación horizontal entre entidades pertenecientes al sector público, previa celebración de los correspondientes convenios, en las condiciones y los límites que se establece en el apdo. 1 del art. 6."*

10. Dicha colaboración tiene su encaje legal en los principios de colaboración, cooperación y asistencia interadministrativa recogidos, entre los arts. 140 y ss. de la Ley 40/2015, del 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, art. 107 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi y el mencionado art. 31 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

Este Convenio queda formalizado al amparo de lo previsto en el art. 11 de la Ley 40/2015 antes mencionada, amparando la encomienda de gestión de aquellas funciones que constituyen la prestación de los servicios que se determinan en este convenio. El apartado tercero del mencionado artículo concreta como ha de formalizarse la encomienda: "*b) Cuando la encomienda de gestión se realice entre órganos y Entidades de Derecho Público de distintas Administraciones se formalizará mediante firma del correspondiente convenio entre ellas, que deberá ser publicado en el «Boletín Oficial del Estado», en el Boletín oficial de la Comunidad Autónoma o en el de la Provincia, según la Administración a que pertenezca el órgano encomendante, salvo en el supuesto de la gestión ordinaria de los servicios de las Comunidades Autónomas por las Diputaciones Provinciales o en su caso Cabildos o Consejos insulares, que se regirá por la legislación de Régimen Local."*

Aun cuando la formalización de la encomienda deba realizarse mediante la suscripción de un

Legearen 47. artikuluan eta hurrengoetan hitzarmenei buruz ezarritakoa. Honelaxe dio 40/2015 Legearen 48.9 artikuluak: *"Kapitulu honetako arauak ez zaizkie aplikatuko kudeaketa-aginduei eta administrazio-prozedurak hitzarmen bidez amaitzeko akordioei."*

convenio, la encomienda no debe cumplir con lo establecido sobre los convenios en los art. 47 y ss. de la Ley 40/2015. Así lo dispone el art. 48.9 de la Ley 40/2015: "*Las normas del presente Capítulo no serán de aplicación a las encomiendas de gestión y los acuerdos de terminación convencional de los procedimientos administrativos."*

11. Aipatutako eskumenak berariaz dakartzan jarduera materialak, teknikoak edo zerbitzukoak ezin dituzte udalek egin, honako arrazoi hauengatik:

a. Esleitzen zaizkion eskumenak oso zailak dira hitzarmen hau sinatzen duten toki-erakundeetan; izan ere, berorien tamaina eta populazioa txikia denez, ez dute zerbitzua behar bezala eskaintzako behar besteko azpiegiturarik.

b. Toki-erakunde hauek dituzten baliabide ekonomiko urriak optimizatzeko beharra lehenesten da.

c. Hitzarmen honen xede diren zerbitzuak modu koordinatuan eskaini behar dira Gorbeialdeko Kuadrilla bera osatzen duten udalerrietan zein udalerri mugakideetan, herritarrek zerbitzu osoagoa eta eraginkorragoa jasoko badute.

11. Que la realización de las actividades de carácter material, técnico o de servicio que implica dicha competencia no pueden ser realizadas por los ayuntamientos por las siguientes razones:

a) Las competencias que se le atribuyen son de muy difícil ejecución en las entidades locales que suscriben el presente convenio, porque dado su reducido tamaño y población, no están dotados de las infraestructuras necesarias para la prestación efectiva del servicio.

b) Se observa la necesidad de optimizar los recursos económicos escasos que disponen las presentes entidades locales.

c) Es necesario ofrecer los servicios objeto de este convenio de manera coordinada en los diferentes municipios pertenecientes o colindantes a la Cuadrilla de Gorbeialdea con el fin de ofertar un servicio más completo y eficaz a la ciudadanía.

12. Izenpetzearen helburua da kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetzea, bitarteko eta zerbitzu publikoak batera erabili eta partekatzea erraztea, onura publikoko jarduerak egiten laguntzea eta aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko legeria betetzea.

12. Su suscripción pretende mejorar la eficiencia de la gestión pública, facilitar la utilización conjunta de medios y servicios públicos, contribuir a la realización de actividades de utilidad pública y cumplir con la legislación de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera.

## KLAUSULAK

### 1. APLIKAZIO-EREMU SUBJEKTIBOA ETA LURRALDE-EREMUA

Hitzarmen honen menpe geratzen dira berori sinatu duten toki-erakundeak, eta hitzarmen honen aplikazio-eremua Gorbeialdeko kuadrillak eta Otxandioko udalerriak osatuko dute, honakoari dagokionean izan ezik: Otxandioko udalerriko konpostaje komunitarioren mantentze-lanetarako eta kontrolerako zerbitzua.

### 2. XEDEA

1. Hitzarmen honen xedea da alderdi juridikoetan, administratiboetan eta ekonomikoetan arteztuko dituzten eskubideak

## CLAUSULAS

### 1. AMBITO DE APLICACIÓN SUBJETIVO Y TERRITORIAL

Quedan sujetos al presente convenio las entidades locales firmantes y el ámbito territorial de aplicación del presenten convenio será la Cuadrilla de Gorbeialdea y el municipio de Otxandio, salvo en lo relativo al servicio de servicio de mantenimiento y control de las zonas de compostaje comunitario de este último municipio.

### 2. OBJETO

1. El presente convenio tiene por objeto plasmar las condiciones que regulan los derechos y obligaciones que regirán en los aspectos jurídicos,

eta betebeharrak arautzen dituzten baldintzak islatzea, bai eta _________(e)ko udalak Gorbeialdeko Kuadrillari bere lurralde-eremuan etxeko hondakinak eta antzekoak biltzeko eta horiek biltegiratzeko baimendutako tratamendu-instalazioetara garraiatzeko egindako kudeaketa-aginduan eta komunitateko konpostaje-guneak mantentzeko eta kontrolatzeko Zerbitzuaren aginduan ere.

2. Agindua emateak ez dakar eskumenen titulartasuna aldatzerik, gaiaren gaineko eskumena Udalari baitagokio.

**3. GORBEIALDEKO KUADRILLAREN BETEBEHARRAK**

Hitzarmen honen xedea gauzatzeko, Gorbeialdeko Kuadrillak honako konpromiso hauek hartu ditu:

1. Gorbeialdeko Kuadrillari dagokio administrazio-kontratazioa kudeatzea, bai eta zerbitzua benetan emateko beharrezkoak diren gainerako gaiak ere, eta Gorbeia Inguruetako Partzuergoak orain arte zuen lekuan subrogatuko da, bai kontratistari dagokionez, bai beste erakunde publiko edo pribatu batzuekiko harremanetan.

2. Ontzi arinen zatikiari dagokionez, Kuadrilla izango da kudeaketa-sistema integratuek eratorritako materiala saltzeagatik jaso beharreko diru-kopuruak kudeatuko dituen erakundea. Helburu horrekin, Kuadrillak baimena izango du erakunde mandatugilearen izenean eta ordezkaritzan beharrezkoak diren hitzarmenak eta dokumentuak sinatzeko. Kuadrillak bildutako ontzi arinak saltzeagatik lortzen duen kopurua zerbitzuaren urteko likidazioan deskontatuko da.

3. Kuadrillak, hasiera batean, agindutako zerbitzuei dagozkien hileko fakturak ordainduko ditu, bai eta hondakinak baimendutako plantetan uzteagatiko tasak ere.

4. Kuadrillak, ekitaldi bakoitzeko azaroan, zerbitzuaren eskaintzeak hurrengo ekitaldian izango duen kostuaren aurreikuspena bidaliko dio erakunde mandatugileari. Aurreikuspen hori aldatu ahal izango da zerbitzuaren prezioa igo edo jaitsi egin delako, zerbitzuaren kontratazioa

administrativos y económicos, en la encomienda de gestión por parte del Ayuntamiento de _________ a la Cuadrilla de Gorbeialdea del Servicio de recogida de los residuos domésticos y asimilables en su ámbito territorial, y su transporte a las plantas de tratamiento autorizadas para su depósito, y del Servicio de mantenimiento y control de las zonas de compostaje comunitario.

2. La encomienda no supone cambio de la titularidad de las competencias que sobre la materia corresponden al Ayuntamiento encomendante.

**3. OBLIGACIONES DE LA CUADRILLA DE GORBEIALDEA**

Para llevar a cabo el objeto del presente convenio, la Cuadrilla de Gorbeialdea se compromete a lo siguiente:

1. Corresponderá a la Cuadrilla de Gorbeialdea, la gestión de la contratación administrativa y demás cuestiones necesarias para la prestación efectiva del servicio, subrogándose en la posición que hasta la fecha tenía el Consorcio de Estribaciones del Gorbea, tanto en lo relativo al contratista como en sus relaciones con otras entidades públicas o privadas.

2. En lo relativo a la fracción de envases ligeros, la Cuadrilla será la entidad que gestione las cantidades económicas que correspondan por la venta del material recogido provenientes de los sistemas integrados de gestión. Con dicha finalidad, la Cuadrilla estará autorizada para la firma en nombre y representación de la entidad encomendante de los convenios y documentos que sean necesarios. La cantidad que la Cuadrilla obtenga por la venta de los envases ligeros recogidos se descontará en la liquidación anual del servicio.

3. La Cuadrilla abonará inicialmente las facturas mensuales correspondientes a los servicios encomendados, así como las tasas por depósito de sus residuos en plantas autorizadas.

4. La Cuadrilla remitirá a la entidad encomendante, en el mes de noviembre de cada ejercicio, una previsión del coste de la prestación del servicio para el ejercicio siguiente. Dicha previsión podrá variar a la vista del incremento o disminución del precio del servicio que resulte de

arautzen duen administrazio-klausulen agirian prezioak berrikusteko aurreikusitako formulak aplikatzearen ondorioz, edo, hala badagokio, interes publikoari zor zaizkion aurreikusi gabeko zirkunstantziengatik.

la aplicación de las fórmulas previstas para la revisión de precios en el pliego de cláusulas administrativas que rige la contratación del servicio o, en su caso, o por circunstancias no previstas que resulten de interés público.

5. Kuadrillak ekitaldi bakoitzeko lehenengo bi hilabeteetan bidaliko du aurreko urteko zerbitzuaren kostuen likidazio xehatua.

5. La Cuadrilla remitirá en los dos primeros meses de cada ejercicio la liquidación detallada de los costes del servicio del año anterior.

6. Hitzarmen honen xede diren zerbitzuak finantzatzen laguntzeko beharrezkoak diren dirulaguntzen eskabideak izapidetuko ditu kasuan kasuko administrazio edo erakunde publikoen aurrean.

6. Tramitará las solicitudes de subvención necesarias para contribuir a la financiación de los servicios objeto de este convenio a las administraciones o entidades públicas correspondientes.

7. Hitzarmen honen xedea betetzeko behar diren kontratazioak egingo ditu.

7. Realizará las contrataciones necesarias para cumplir con el objeto del presente convenio.

8. Egungo kontratuak amaitu baino lehen, hau da, 2023ko urriaren 31n komunitateko konpostaje-guneak mantendu eta kontrolatzekoa, eta 2030eko irailaren 30ean etxeko eta antzeko hondakinak biltzekoa, eta baimendutako tratamendu-instalazioetara garraiatzekoa, Kuadrilla behar besteko aurrerapenaz jarriko da harremanetan erakunde mandatugileekin, hitzarmenaren xede diren zerbitzuen kontratazio berria arautuko duten agirietan beharrezkotzat jotzen dituzten ekarpenak egin ditzaten.

8. Previo a la finalización de los actuales contratos, el 31 de octubre de 2023 el de mantenimiento y control de las zonas de compostaje comunitario, y el 30 de septiembre de 2030 el de la recogida de los residuos domiciliarios y asimilables, y sus transporte a las plantas de tratamiento autorizadas, la Cuadrilla se pondrá en contacto con las entidades encomendantes con la suficiente antelación para que las mismas realicen cuantas aportaciones consideren necesarias incluir en los pliegos que regirán la nueva contratación de los servicios objeto del convenio.

9. Erakunde agindu-emaileei jakinaraziko die, adostasuna eman dezaten, hitzarmen honen xede diren zerbitzuen prestazioaren konfigurazioan egin nahi den edozein aldaketa, barne direlarik luzapenak, atzera egiteak, zerbitzuen adjudikazioa duen pertsonak edo erakundeak egindako uko-egiteak edo beste inguruabar garrantzitsu batzuk.

9. Informará a las entidades encomendantes, a efectos de prestar su conformidad, de cualquier modificación que se pretenda realizar en la configuración de la prestación de los servicios objeto de este convenio incluyendo las posibles prórrogas, desistimientos, renuncias de la persona o entidad adjudicataria de los servicios u otras circunstancias de relevancia.

10. Gorbeialdeko Kuadrillak eskainitako zerbitzuen kostu erreala justifikatu ondoren, erakunde mandatugileen gehiegizko finantziazioa gertatuko balitz, Gorbeialdeko Kuadrillak itzuli egin beharko du soberakin hori. Aitzitik, finantzaketa-defizita egonez gero, Kuadrillak jakinaren gainean jarriko luke agindua eman duen udala/kontzejua eta egin beharreko ekarpenak egin beharko ditu jazotako defizita zein bere proportzioan estaltzeko.

10. Si tras la justificación del coste real, por la prestación de los servicios que realice la Cuadrilla de Gorbeialdea hubiese un exceso de financiación por parte de las entidades encomendantes, la Cuadrilla de Gorbeialdea se obliga a reintegrar dicho exceso. Si por el contrario hubiese un defecto de financiación, la Cuadrilla dará cuenta de esta situación al Ayuntamiento/Concejo encomendante y éste deberá realizar las aportaciones necesarias para cubrir el defecto existente en la proporción que le corresponda.

11. Kuadrillako presidenteak modu aktiboan hartuko du parte Hitzarmen honen Jarraipen Batzordean.

**4. ERAKUNDE MANDATUGILEAREN BETEBEHARRAK**

Hitzarmen honen xedea gauzatzeko, erakunde mandatugileak honako konpromiso hauek hartu ditu:

1. Erakunde agindu-emaileak bere zerbitzuei egotz dakizkiekeen kostu guztiak ordainduko ditu, dagokion zatian, baimendutako plantetara eramateko tasak eta administrazio eta kudeaketa-gastuak barne.

2. Kuadrillako Batzarrak onartzen duen tasa-proposamenarekin zerbitzuen kostu osoa ordaintzeko behar besteko kopururik biltzen ez bada, erakunde mandatugileek aurre egin beharko diote kostuen eta diru-sarreren arteko aldeari, Kuadrillako Batzarrean onartzen den banaketa-sistemaren arabera.

3. Zerbitzuen ordainketa hiru zatitan egingo da: lehenengo ordainketa urte bakoitzeko apirilean egingo da, ekitaldirako aurreikusitako kostuaren erdiarekin; bigarren ordainketa urte bakoitzeko azaroaren 30a baino lehen egingo da, aurreikusitako kostuaren bigarren erdiarekin; hirugarren ordainketa hurrengo urteko otsailaren azken eguna baino lehen egingo da, Partzuergoak kostuak eta diru-sarrerak eskatu eta justifikatu ondoren, ekitaldia itxi ondoren eta kalkulu guztiak eginak direnean. Hirugarren ordainketa hori azken kostuaren eta apirilean eta azaroan egindako konturako sarreren arteko gainerakoa izango da.

4. Gorbeialdeko Kuadrillak emandako zerbitzuen defizitari laguntzeko konpromisoa hartzea, betiere unean-une indarrean dagoen aurrekontu-arloko legerian xedatutakoa betetzen bada. Horretarako, Gorbeialdeko Kuadrillak ekitaldi ekonomiko bakoitzaren hasieran zerbitzuaren kostuari buruz egindako aurreikuspenei aurre egiteko beharrezkoa den aurrekontu-kreditua sartuko da urteko aurrekontuan.

5. Hitzarmen honen xede diren zerbitzuen kontratazioa arautuko duten baldintza-agiriekin ados egotea eta egoki leritzokeen ekarpenak edo

11. La presidencia de la Cuadrilla participará activamente en la Comisión de Seguimiento del presente Convenio.

**4. OBLIGACIONES DE LA ENTIDAD ENCOMENDANTE**

Para llevar a cabo el objeto del presente Convenio, la entidad encomendante se compromete a lo siguiente:

1. La entidad encomendante se compromete al abono de la totalidad de los costes imputables a sus servicios en la parte que le corresponda, incluidas las tasas de depósito en plantas autorizadas y los gastos de administración y gestión.

2. En caso de que con la propuesta de tasas que se apruebe por la Junta de Cuadrilla no se recaude la cantidad suficiente para sufragar el coste total de los servicios, las entidades encomendantes deberán hacer frente a la diferencia entre costes e ingresos de acuerdo con el sistema de reparto que se apruebe en la Junta de Cuadrilla.

3. El abono de los servicios se hará en tres pagos: un primer pago en el mes de abril de cada año, por la mitad del coste previsto para el ejercicio; un segundo pago, con anterioridad al 30 de noviembre de cada año, por importe de la segunda mitad del coste previsto; un tercer pago, con anterioridad al último día de febrero del año siguiente, previa petición y justificación de los costes e ingresos por parte del Consorcio, tras el cierre del ejercicio y una vez se tengan hechos todos los cálculos. Este tercer pago se hará por la parte restante entre el coste final y los ingresos a cuenta hechos en abril y noviembre.

4. Comprometerse, siempre y cuando se cumpla lo dispuesto en la legislación en materia presupuestaria vigente en cada momento, a contribuir al déficit de los servicios objeto de este convenio prestados por la Cuadrilla de Gorbeialdea mediante la inclusión en el presupuesto anual del crédito presupuestario necesario para hacer frente a las previsiones de coste del servicio aportadas por la Cuadrilla de Gorbeialdea al comienzo de cada ejercicio económico.

5. Prestar conformidad y realizar las aportaciones o alegaciones que se estimen pertinentes a los pliegos de condiciones que regirán la contratación de los servicios objeto del presente convenio, con

alegazioak egitea, zerbitzu horien lizitazio-prozedura izapidetu aurretik.

carácter previo a la tramitación del correspondiente procedimiento de licitación de los mismos.

6. Gorbeialdeko Kuadrillari zerbitzu bera eskuordetzeko aginduak egin dizkieten gainontzeko erakundeekin koordinazio-lanak egitea, herritarrei zerbitzu eraginkorragoa eta osoagoa eskainiko bazaie.

6. Realizar las labores de coordinación necesarias con otras entidades que hayan realizado encomiendas a la Cuadrilla sobre el mismo servicio y la Cuadrilla de Gorbeialdea con el fin de ofrecer un servicio más eficiente y completo para la ciudadanía.

7. Ordezkari bat izendatuko du, hitzarmen honen jarraipen batzordean aktiboki parte hartuko duena.

7. Nombrar a un representante para la participación activa en la Comisión de Seguimiento del presente Convenio.

**5. ZERBITZUA ESKAINTZEKO MODUA ETA EDUKIA**

**5. CONTENIDO Y MODO DE PRESTACIÓN DEL SERVICIO**

Dokumentu honen azalpen-atalean jaso den bezala, Gorbeia Inguruetako Partzuergoak eskaintzen du orain arte agindua eman duen udalerrian/kontzejuan etxeko hondakinak eta antzekoak biltzeko eta garraiatzeko zerbitzua. Partzuergoak 8 urtetarako dauka kontratatuta zerbitzua, horretarako kontratua 2022ko urriaren 1ean hasi zelarik.

Tal y como se ha hecho constar en el apartado expositivo del presente documento, el Servicio de recogida y transporte de los residuos domésticos y asimilables en el municipio/concejo encomendante se viene prestando hasta la fecha por el Consorcio de Estribaciones del Gorbea. Dicha entidad tiene contratado el servicio por periodo de 8 años, habiendo comenzado el mismo el día 1 de octubre de 2022.

Hori dela eta, kuadrillak eskaini beharko duen zerbitzua administrazio-klausulen agirian eta partzuergoak deitutako lizitazioa arautzen duten klausula teknikoen agirian xedatutakoaren arabera eskainiko da, Gorbeialdeko kuadrillak eta erakunde agindu-egileak berariaz adierazten dutelarik baldintza horiek guztiak ezagutzen dituztela, nork bere gain hartuta.

Por ello, la prestación del servicio por parte de la Cuadrilla se hará de conformidad con lo dispuesto en el pliego de cláusulas administrativas y en el de cláusulas técnicas que rigen la licitación convocada por el Consorcio, y que tanto la Cuadrilla de Gorbeialdea como la entidad encomendante declaran expresamente conocer y asumir en su totalidad.

Hondakinei eta ingurumenari buruzko arautegia eta, batez ere, birziklatzeari buruzko arautegia eta hondakin-mota desberdinen gaikako bilketaren bilakaera kontuan hartuta, Gorbeialdeko kuadrillak aginduaren xede diren zerbitzuak egokitzeko eta/edo aldatzeko eskubidea izango du, bilketa bereizi edo selektibo berriak sartuz.

Teniendo en cuenta la normativa de residuos y medioambiental y su regulación fundamentalmente sobre el reciclaje y a la evolución previsible de la recogida selectiva de diferentes tipos de residuos, la Cuadrilla de Gorbeialdea se reserva el derecho a adaptar y/o modificar los servicios objeto de la encomienda, para la inclusión de nuevas recogidas separadas o selectivas.

Arrazoi hori edo beste bat dela eta, aldaketarik egin beharko balitz zerbitzua eskaintzeko moduan edo ezaugarrietan, kuadrillak unean uneko aldaketaren irismenaren berri emango dio agindua egin duen erakundeari, egoki leritzokeena aurkez edo alega dezan.

En el caso de que por este u otro motivo se considere necesaria cualquier modificación en el modo o características de la prestación del servicio, la Cuadrilla pondrá en conocimiento de la entidad encomendante el alcance de la misma, para que pueda aportar o en su caso alegar lo que estime oportuno.

Gainera, komunitateko konpostaje-guneak mantentzeko eta kontrolatzeko zerbitzuari dagokionez, partzuergoak deitutako kontratazioa arautzen duten klausula administratiboen eta teknikoen pleguen arabera egingo da prestazioa, Gorbeialdeko kuadrillak eta erakunde mandatugileak berariaz aitortzen dutelarik klausulok oso-osorik ezagutu eta beren gain hartzen dituztela.

Además, en relación con el Servicio de mantenimiento y control de las zonas de compostaje comunitario, la prestación se hará de conformidad con los pliegos de cláusulas administrativas y técnicas que rigen la contratación convocada por el Consorcio, y que tanto la Cuadrilla de Gorbeialdea como la entidad encomendante declaran expresamente conocer y asumir en su totalidad.

**6. IRAUPENA**

Kudeaketa-agindu hau mugagabea izango da. Hala ere, etxeko eta pareko hondakinak bildu eta baimendutako tratamendu-instalazioetara garraiatzeko zerbitzua kudeatzeko aginduari dagokienez, aginduaren indarraldia kontratuaren amaiera-datarekin (<u>2030eko irailaren 30a</u>) bat datorren <u>gutxieneko aldi baterako</u> ezarriko da. Hori guztia, interes orokorreko arrazoiengatik baliogabetzeko aukerari kalterik egin gabe, edo, alderdietako batek sei hilabete lehenago salatuta, dokumentu honetan nork bere gain hartutako betebeharrak ez betetzeagatik.

**6. DURACIÓN**

La encomienda de gestión se acuerda con carácter indefinido, si bien en lo relativo a la encomienda de gestión del servicio de recogida de residuos domiciliarios y asimilables, y su transporte a las plantas de tratamiento autorizadas, la vigencia de la encomienda se fija por un <u>periodo mínimo</u> coincidente con el de la finalización del contrato <u>(30 de septiembre de 2030)</u>. Todo ello sin perjuicio de la posibilidad de revocación por motivos de interés general o bien, previa denuncia de cualquiera de las partes con preaviso de seis meses, por incumplimiento de las obligaciones respectivamente asumidas en el presente documento.

**7. JARRAIPEN-BATZORDEA**

1. Batzorde bat eratuko da, agiri honen betearazpena eta jarraipena kontrolatzeko ardura izango duen organo gisa. Batzorde honetako kide izango dira Gorbeialdeko presidentea edo berori ordezka lezakeena eta, erakunde mandatugileen bana ordezkari, alkatea edo batzarburua edo beroriek ordezka litzaketenak izanik.

Honetara, jarraipen-batzordea honako ordezkari hauek osatuko dute:

**7. COMISIÓN DE SEGUIMIENTO**

1. Como órgano encargado del control de su ejecución y seguimiento se establece una Comisión, compuesta por un representante de la Cuadrilla de Gorbeialdea, que corresponderá a la presidencia o persona en quien delegue, y un representante de cada una de las entidades encomendantes, que corresponderá a la alcaldía o presidencia, o personas en quienes deleguen.

De tal manera, la Comisión de Seguimiento queda formada por las siguientes personas representantes:

| TOKI-ERAKUNDEA<br>*ENTIDAD LOCAL* | ORDEZKARIA<br>*REPRESENTANTE* |
|---|---|
| Gorbeialdeko Kuadrilla<br>*Cuadrilla de Gorbeialdea* | Kuadrillako presidentea<br>*Presidente/a de la Cuadrilla* |
| Erakunde mandatugileak (6): Aramaio, Legutio, Otxandio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuiako Udalak.<br>*Entidades encomendantes (6): ayuntamientos de Aramaio, Legutio, Otxandio, Urkabustaiz, Zigoitia y Zuia.* | Udaletako alkateak<br>*Alcaldías de los ayuntamientos.* |

2. Honako hauek izango dira organo honen eginkizunak:

- Hobekuntzak koordinatu eta proposatzea hiri-hondakinak bildu, garraiatu eta tratatzeko zerbitzuan.

- Hitzarmen honetan jasotako arloetan laguntza teknikoko zerbitzuak ematean sor daitezkeen elkarren aurkako iritziak ebaztea.

- Hitzarmen honek sor ditzakeen interpretazio-zalantzak ere ebaztea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen printzipioak aplikatuz, 4. artikuluan xedatutakoarekin bat, hitzarmena indarrean dagoen bitartean sor daitezkeen zalantza eta hutsuneen ebazteari dagokionean.

- Hitzarmenaren ez-betetzeak identifikatzea eta ez-betetzeak egin dituen alderdiari eskatzea hilabeteko epean bete ditzala urratutzat jotako betebeharrak edo konpromisoak.

3. Batzordeak urtean behin egingo du ohiko bilera eta ezohiko bilera, behar den guztietan, aldeetako edozeinek eskatuta, hitzarmen honen xedearekin zerikusia duten jarduerak eztabaidatu eta koordinatzeko.

4. Bilerak kuadrillaren bulegoetan egingo dira, kuadrillako presidenteak edo berori ordezka lezakeen batzarkideak deituta.

5. Kideen gehiengo soila izango da batzordea behar bezala eratzeko behar den quoruma, tokiko erakunde mandatugile guztien eta Gorbeialdeko kuadrillaren ordezkariek osatuta. Erabakiak gehiengo soilez hartuko dira.

**8. ALDATZEA**

Hitzarmen bidez formalizatutako mandatu hau bi aldeen adostasunez aldatu ahal izango da, aldeetako edozeinek eskatuta.

**9. AZKENTZEA**

1. Agindu hori azkendu egingo da bere xedea betetzen denean edo suntsiarazteko arrazoiren bat gertatzerakoan. Hauek dira suntsiarazteko arrazoiak:

2. Las funciones de este órgano serán:

- Coordinar y proponer mejoras en el servicio de recogida, transporte y tratamiento de los residuos urbanos.

- Resolver las posibles controversias que surjan en la prestación de los servicios de asistencia técnica en las distintas áreas que recoge este convenio.

- Solventar las dudas de interpretación que pueda plantear el presente convenio, aplicando los principios de la Ley de Contratos del Sector Público, conforme a lo dispuesto en su artículo 4 para resolver las dudas y lagunas que pudieran presentarse durante su vigencia.

- Identificar los incumplimientos del convenio y requerir a la parte incumplidora para que cumpla en un plazo de un mes con las obligaciones o compromisos que se consideran incumplidos.

3. La Comisión se reunirá de manera ordinaria una vez al año y de manera extraordinaria cuantas veces sea necesario, a petición de cualquiera de aquellas, para deliberar y acordar la coordinación de las actuaciones relacionadas con la finalidad perseguida en el presente Convenio.

4. Las reuniones se celebrarán en las dependencias de la Cuadrilla, y serán convocadas por la presidencia de la Cuadrilla o persona juntera en quien delegue.

5. El quórum necesario para la válida constitución de la comisión será el de mayoría simple de sus miembros compuesto por las representaciones de todas las entidades locales comandantes y la Cuadrilla de Gorbeialdea. Los acuerdos se adoptarán por mayoría simple.

**8. MODIFICACIÓN**

La presente encomienda formalizada por convenio podrá ser modificada de mutuo acuerdo, a solicitud de cualquiera de las partes.

**9. EXTINCIÓN**

1. Esta encomienda se extinguirá por el cumplimiento de su objeto o por incurrir en alguna causa de resolución. Son causas de resolución:

a) Alderdi sinatzaileen elkarren arteko adostasunaz.

b) Hitzarmen honen xede diren jardueren ezinezkotasuna edo beharrezkotasunik eza lekarzketen baldintzengatik.

c) Alderdi sinatzaileetako batek bere egindako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzeaagatik.

d) Hitzarmenaren baliogabetasuna ebatziko lukeen epailearen epaiarengatik.

e) Ordenamendu juridikoan aurreikusitako beste edozein arrazoirengatik.

2. Erakunde agindu-emaileak erabakiko balu kudeaketa-agindu hau 6. klausulan aurreikusitako gutxieneko iraupen-data baino lehen amaitzea, agindua amaitutzat joko lukeen erakundeak aurre egin beharko lieke agindutako zerbitzuaren baldintzak aldatzearen ondoriozko kostu ekonomikoei edo kalte-ordainei.

a) Por mutuo acuerdo de las partes firmantes.

b) Por circunstancias que hicieran imposible o innecesaria la realización de las actuaciones objeto de este convenio.

c) Por el incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por parte de alguna de las partes firmantes.

d) Por decisión judicial declaratoria de la nulidad del convenio.

e) Cualquier otra causa prevista en el ordenamiento jurídico.

2. Si la entidad encomendante decidiese finalizar la presente encomienda de gestión con anterioridad a la fecha de duración mínima prevista en la cláusula 6, la entidad que dé por terminada la encomienda deberá hacer frente a los costes económicos o indemnización que se deriven de la modificación de las condiciones del servicio encomendado.

**10. EZ-BETETZE ARAUBIDEA**

Sinatzaileetakoren batek bere egindako betebeharrak eta konpromisoak beteko ez balitu, jarraipen-batzordeak errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio ez-betetzea egin duen alderdiari, urratutzat jotako betebeharrak edo konpromisoak hilabeteko epean bete ditzan.

Errekerimenduan adierazitako epea igarotakoan, ez-betetzeak bere horretan jarraituko balu, jarraipen-batzordeak suntsiarazteko arrazoia jakinaraziko lioke ez-betetzea egin duen alderdiari, hitzarmena suntsitutzat jota. Hitzarmena arrazoi horrengatik suntsiarazteak beren beregi eragingo luke zerbitzuak eta beroriei atxikitako pertsonala berrantolatzeak eragindako kalte eta kostuen kalte-ordaina.

**10. RÉGIMEN DE INCUMPLIMIENTO**

Si se diera el incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por parte de alguno de los firmantes, la Comisión de Seguimiento podrá notificar a la parte incumplidora un requerimiento para que cumpla en el plazo de un mes con las obligaciones o compromisos que se consideran incumplidos.

Si trascurrido el plazo indicado en el requerimiento persistiera el incumplimiento, la Comisión de seguimiento notificará a la parte incumplidora concurrencia de la causa de resolución y se entenderá resuelto el convenio. La resolución del convenio por esta causa conllevará la indemnización de los perjuicios y costes causados derivados de la reconfiguración de los servicios y del personal adscrito al mismos.

**11. HITZARMENAREN ARAUBIDEA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA**

Hitzarmen hau Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluan aurreikusitakoen izaera du, salbuetsita dagoelarik Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 legeaz. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB

**11. REGIMEN DEL CONVENIO Y JURISDICCIÓN COMPETENTE**

El presente Convenio tiene la naturaleza de los previstos en el artículo 11 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, y está excluido de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo

eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora, 6.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, beronen arau bereziek araututa eta adierazitako Legearen printzipioak aplikatuta, sor litezkeen zalantzak eta hutsuneak ebazteko.

Hitzarmen honen interpretazioan, aldaketan, suntsiarazpenean eta aplikazioan sor litezkeen ondorioen inguruan sortutako eztabaidak hitzarmen honetan aurreikusitako jarraipen batzordean konpondu beharko dira, adostasunez, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen printzipioak aplikatuz, 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, hitzarmenaren beraren indarraldian sor daitezkeen zalantzak eta hutsuneak ebazteari dagokionean.

Halaber, auzigaiak administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenaren ardura eta eskumenekoak izango dira, jurisdikzio hori arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearekin bat etorriz.

2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014, conforme a lo dispuesto en su artículo 6.3, regulándose por sus normas especiales y aplicándose los principios de la Ley indicada para resolver las dudas y lagunas que pudieran presentarse.

Las controversias surgidas sobre la interpretación, modificación, resolución y efectos que pudieran derivarse de la aplicación del presente Convenio, deberán solventarse de mutuo acuerdo en el seno de la Comisión de Seguimiento prevista en este Convenio, aplicando los principios de la Ley de Contratos del Sector Público, conforme a lo dispuesto en su artículo 4 para resolver las dudas y lagunas que pudieran presentarse durante su vigencia.

Así mismo, las cuestiones litigiosas serán de conocimiento y competencia del orden jurisdiccional contencioso-administrativo, de conformidad con la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de dicha jurisdicción.

**12. PUBLIZITATEA**

Kudeaketa-agindurako hitzarmen hau argitaratu egingo da Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11.3 b) artikuluan xedatutakoari jarraiki. Alde horretatik, alderdiek berariaz onartzen dute Gorbeialdeko kuadrillak, horien guztien izenean, hitzarmen honi eman beharreko publizitatea eman diezaion.

**12. PUBLICIDAD**

Este Convenio de encomienda de gestión será objeto de publicación de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, y en el artículo 11.3 b) de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público. En este sentido, las partes prestan expresamente su consentimiento para que la Cuadrilla de Gorbeialdea dé en su nombre la publicidad exigida al presente convenio.

**13. INDARREAN JARTZEA**

Hitzarmen hau indarrean jarriko da Gorbeia Inguruetako Partzuergoak partzuergoa bera desegitea behin betiko onartu eta, bere aktibo eta pasibo guztiak Gorbeialdeko Kuadrillari lagatzeko erabakia behin hartu ondoren.

Eta adostasunaren adierazteko, alderdi guztiek sinatzen dute agindu hau, ondorio bakarrerako, ______________(e)ko tokian eta egunean, azken sinatzailearen data hartzen delarik dokumentu hau formalizatzeko datatzat.

**13. ENTRADA EN VIGOR**

El presente convenio entrará en vigor una vez haya sido aprobada definitivamente por el Consorcio “Estribaciones del Gorbea” la disolución del mismo y se haya acordado la cesión global de activos y pasivos a favor de la Cuadrilla de Gorbeialdea.

Y en prueba de conformidad, todas partes suscriben esta encomienda, a un solo efecto, en el lugar y en las fechas de ______________, tomándose como fecha de formalización del presente documento la fecha del último firmante.